



EUSKERAREN AHOLKU BATZARRA BARRIZTATZEKO PROPOSAMENA

1.-EUSKERA AHOLKU BATZARRA ZER DA?

Mungiako Euskera Aholku Batzarra Udalaren Hizkuntz Politika diseinatzeko eta aurrera eramateko eraturako tresna da, herritarrek eta herri ekimenean zeresana daukaten bizilagunek osatua.

2.-BATZORDEAREN EGITEKOAK / FUNTZINOAK

- Normalizazio prozesuaren gaineko proposamenak egin.
- Prozesu horiek gauzatzeko lagundu.
- Prozesuei jarraipena egin, eta, beharrezkoa denean, zuzenketa-neurriak proposatu.

Batzorde honen funtzio proposatzailea gehienbat herriari begira den arren, Erabilera Planen buruzko proposamenak ere egin ditzake (herri planaren barruko tresna gisa), herritarrenganako zerbitzuan eragina daukanean.

3.-BATZORDEAREN OSAERA

Kontuan izanda urteotan ikusi ditugun gabeziak eta indarguneak batetik, eta batzorde honek bete behar dituen funtzioak bestetik, Batzordea bi printzipioen arabera osatuko da:

—Herrian dauden eragile guztietatik ahalik eta gehien batzea.

—Kopuru hori eraginkorra izatea.

3.1.- Ordezkaritza kopurua

Hauei egingo zaie ordezkaritza(k) izendatzeko deia:

- Euskaraldiaren Talde Eragilearen / Mungian Euskeraz elkartearen ordezkaritza (gehienez bost kide)
- Taket bertso elkartearen ordezkaritza
- Udal Euskaltegiaren ordezkaritza
- Kinttopeko-AEK euskaltegiaren ordezkaritza
- Gainerako elkarteetako ordezkaritza (bana)
- Merkatari eta ostalarien elkarteko ordezkaritza bi
- Interesa izan dezaketen herritarrak (gehienez 6)
- Euskera Saileko Burua, Idazkaria eta koordinatzailea izango dena
- Udalbatzaren ordezkatutako alderdi bakoitzak aukeratutako ordezkaritza bana eta Euskera zinegotzia
- Hala deritzon Alkateak berak ere har dezake parte.

Euskera zinegotzia izango da batzordeburua eta euskera teknikariak beteko ditu idazkari-eta koordinazio lanak.

Gutxienez 10 kide eman beharko dute baiezkoa. Gutxieneko horretara heldu ezean, berriro egingo da deia.



3.2.- Azpibatzerdeak

Euskera Aholku Batzerdeak berariazko azpibatzerdeak sortu ahal ditu bai bertako kideekin bai kanpoan dauden beste kide batzuekin gai tekniko batzuk garatu ahal izateko. Era berean foro edo batzar irekiak ere dei ditzake.

3.3.- Zelan heldu ordezkariengana

Goian aitatutako entitate guzti horiei emailaz bidaliko zaie eskaintza, eta telefonoz edo aurrez aurre egingo zaie eskaintza.

4.- BATZARRAK

4.1.- Kopurua

Urtean Ohiko 3 batzar egingo dira gutxienean. Ezohiko Batzarrak deitu daitezke Idazkariak hala deituta edo kideen erdiak hala eskatzen duenean. Dena den, planak diseinatu beharra dagoenean, posible da besteren bat ere egitea.

4.2.- Deialdiak

Gai ordena Idazkariak zehaztuko du.

Parte hartzaileek euren proposamenak bidali ditzakete ohiko batzarra baino hamabost egun lehenago.

Astebeteko aurretiaz egingo dira, eta batzarrean teknikariak azalduko duen materiala ere bidaliko da.

4.3.- Bozketaz eta jarduteko moduz.

Euskera Aholku Batzerdearen zeregina proposatzailea eta eragileaenez, erabaki bihur daitezkeen proposamenak gehiengoz egingo dira, gai jakin batzuetan izan ezik, Euskera Saria kasu. Euskera Saria aho batez proposatu beharko da. Hala ere, edozein kidek eskubidea edukiko du bere boz partikularra gehitzeko eta hala batu beharko du Idazkariak.